

### 3.- KANALAK

- ⑩ Aplikazioaren bitartez eskatu daitezke produktuak, lehen esan bezala, teknologia berriek indar handia baitute gure gizartean, eta gaur egun ia mundu guztiak duelako mugikor bat eskura, eta erabiltzaileen portzentaia handiak aplikazioak erabiltzeko gaitasun nahikoa baitu. Horrek biztanleriaren zati txiki bat kanpoan uzten badu ere (jende adindua edo mugikorrik ez duten pertsonak adibidez) gure merkatua nahiko zabala dela esan dezakegu.
- ⑩ Bezeroak eskatutako janaria garraio-elementuen bitartez garraiatu daiteke, bezeroak etxean bertan edo bere erosotasunaren arabera nahi duen lekuan eskatzen duena jaso ahal izateko.
- ⑩ Aplikazioaz gain, mugikorren erabiltzaileek gure berri izan dezakete sare sozialetan, adibidez Instagramen, eta bide batez, gure produktuak ezagutu ahal izango dituzte, baita gure berrikuntzen berri izan ere.
- ⑩ Web orria ere izango dugu, bezeroak gure berri izateko. Bertan aplikazioari buruzko informazioa eta eskatzeko modua nola den ere jakin ahal izango da.
- ⑩ Gainera, ahoz ahoko komunikazioa ere oso garrantzitsua da guretzat. Horren bidez, gure produktuak ezagutzen dituen jendeak jende berriari jakinaraziko dio gure eskaintzaz, eta horren bidez, eskari handiagoa edukiko dugu.

